

AZPEITIA EZAGUTZEN

Handitzen handitzen • Jaso dugun altxorra



3.
unitate
didaktikoa

4.
unitate
didaktikoa

AZPEITIA EZAGUTZEN

Handitzen handitzen • Jaso dugun altxorra

- Argitaratzailea: Azpeitiko Udala (Hezkuntza Saila)
- Egilea eta koordinazio lanak: Olatz Aranguren Juaristi
- Ilustrazioak: Iban Izagirre Uranga
- Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
- Aholkularitza: HIK HASI Euskal Heziketarako egitasmoa
- Argazkiak:
 - EREGI, Euskara eta Komunikazioa (Leire Larrañaga)
 - 6. orrialdeko argazkia ERESBilek utzitakoa.
 - 11. orrialdeko argazkia guregipuzkoa.net eta antzinakolanbideak.net.
 - 12. orrialdeko argazkiak Urola Kostako Hitza, Azpeitia: Industria eta Merkataritza (XVI-XVIII mendeak) eta Bertan aldizkaria (16. zenbakia), egilea Santi Yanez.
 - 13. orrialdeko txondorraren irudia Elhuyar zientzia eta teknologia aldizkaria, 88. zenbakia, 1994. Egilea: J. Apeztegia.
 - 14. orrialdeko irudia Albaola Elkartea.
 - 15. orrialdeko irudiak Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - 16. orrialdeko argazkiak Goierriko Hitza. Soinekoa: Ihintza Agirretxe.
 - 17. orrialdeko argazkiak Familia, ezkontzak eta genero-harremana Azpeitian liburua eta Uztarria Komunikazio Taldea.
 - 19. orrialdeko argazkia Gaizka Otamendi.
 - 27, 28 eta 29 orrialdeko argazkiak ©mimadeo, ©evbrbe, ©zagart, ©Gajus, ©Popova Olg, ©John Sandoy, ©dule964, ©mrks_v, ©Picture, ©Partners, ©Phimak, ©Valerii Zan, ©Irochka, ©patricia grolier, ©spyder24, ©Zerbor, ©hecke71, ©goodluck10, ©DGA1958, ©tabares, ©dmitrydesigner - Fotolia.com
 - 30. orrialdeko argazkiak Imanol Eliassen artxiboa.
 - 31. orrialdeko mapa Azpeitiko Udala.
 - 32. orrialdeko mapa Elhuyar eta argazkiak Artea, Arkitektura eta Hirigintza industriaurreko Azpeitian liburutik ateratakoak.
 - 33. orrialdeko argazkiak Imanol Eliassen artxiboa.
 - 35. orrialdeko mapa "Lur Hiztegi Tematikoa" entziklopediakoa, "Euskal Herriko Atlas Historikoa".
- L.G.: SS 1462-2014
- Inprimaketa: ORVY

Nire auzoa _____ da.

Horrelakoa da nire auzoa:

Marrastu zure auzoan gustuko duzun txokoa.

Aipatu ezagutzen dituzun gainerako auzoak.

Kuadernoaren azalean agirretarrak agertzen dira. Semeetako bat Amerikara joan da. Lagunduko al diezu semeari Azpeitia eta bertako auzoen berri ematen? Lotu ezazu gezi bidez irudi bakoitza dagokion laukiarekin.

Auzoko zatirik handiena Zestoari dagokio. San Millango markesaren burdinola zegoen bertan. Sanmartinetan ospatzen dira festak.

Ahaide Nagusien artean izandako borroketan, jaun batzuk auzo horren izena hartu zuten. Festak Sanjuanetan ospatzen dituzte.

Soreasuko monasterioaren inguruan garatzen joan zen. Harresiak izan zituen baina herria handitu ahala bota egin zituzten. Saninazioetan ospatzen dira jai nagusiak.

Auzoaren izen berdina daukan erreka pasatzen da bertatik. Amuarrainak arrantzatu daitezke. San Isidro Egunean ospatzen dituzte jaiak.





Gaur egun, bisitari gehien erakartzen duen inguruko auzoa da. Bertan dago Loiolako Inazioaren eta bere familiaren dorretxea izandakoa. Sanjosetan ospatzen dira jaiak, asto lasterketa eta guzti.

Ibaiaren gainean eraikitako etxeak daude bertan. Auzoaren zati bat Beasainen dago, beste bat Ezkio-Itsason eta bestea Azpeitian, Ibai-eder errekaaren arabera. Santa Ageda jaiak ospatzen dituzte eta urtero irtetzen da bertako taldea eskean.

Hiru aldiz eraiki behar izan zuten bertako eliza. Azpeititik bereiztuta egon zen aldi batean. Antxieta musikariaren familia bertakoa zen. Sanjuanetan ospatzen dituzte jaiak, zuhaitz luze bat jartzen dute plazan.

Sokatiragatik da ezaguna batez ere. Zumitza lantzen aparteko abilezia garatu dute, batez ere otarrak eta saskiak lantzen. Trinitateetan ospatzen dituzte jaiak.

Lotu itzazu honako irudiak beheko laukiekin:



Peruko
konkistatzaileetako
bat **izan zen.**
Bakardadeko kapera
bere omenez eraikitzeko
agindu zuen.



Errege-erregina
katolikoek gorteko
musikaria **izan**
zen. Antxieta etxea
eraikitzeko agindu zuen.



Loiolako etxean jaio
zen. **Gaztetan** soldadua
izan zen. **Iruñean hanka**
zauritu zion **kanoi**
bola batek. Jesusen
Lagundia **sortu zuen.**

SUTEAK

Hiribilduetan askotan izaten ziren suteak. Begiratu bi irudiei eta ea bien artean dauden desberdintasunak aurkitzeko gai zaren (7 dira).



Nola itzaltzen zuten garai hartako azpeitiarrek sua?



Azpeitian eta inguruetako herrietan badira 'sorgin'-ekin lotutako gertaerak eta kondairak. Irakurri ezazu ondorengo ipuina:

“Kimuko⁽¹⁾ baserriko gizonak etxe ondoan emakume bat aurkitu zuen geldi-geldi eta eskean. Emakumeak esan zion angeluseko⁽²⁾ bigarren kanpaiak etxetik kanpo harrapatu zuela eta mugitu ezinik geratu zela. Baserritarrak bazekien, herriko sineskeria zelako, sorginak nahi bezala mugitzen zirela iluntzeko kanpaietatik goizaldekoetara bitartean. Baina eguerdiko kanpai-jotzeak kanpoan harrapatuz gero, botereak galdu eta geldi geratzen zirela. Sorginak hainbeste erregutu zion laguntzeko, gizonari bihotza bigundu eta kobazuloraino eraman zuela bizkarrean hartuta. Kobazulo hori zen emakumearen bizilekua. Gizonaren baserritik oso hurbil zegoen.

Hurrengo egunean Kimuko baserritarrak ohe gainean lihozko alkandora berri distiratsua aurkitu zuen”.

Hainbat egile: *Sorgiñas. Leyendas vascas de brujas*. Iruña, De la Luna. 2004.

⁽¹⁾ **Kimu:** Attola inguruan dagoen baserria (Azkoitiko Madariaga auzoan).

⁽²⁾ **Angelusa:** goizean, eguerdian eta arratsean egiten zen otoitza. Kanpai hotsarekin jakiten zen noiz zen otoitz egiteko ordua.

Nolakoak ziren sorginak?

Marraz ezazu beheko laukian baserritarrari gertatzen zaiona:

Gure inguruan ezagutzen ditugun baserririk zaharrenak 1500-1600 urte bitartekoak dira. Baserri hauek bi solairu izaten zituzten. Lehenengo solairuan etxeko sukaldea, logelak, animalientzako ikuilua eta sagardoa egiteko dolarea izaten zituzten. Batzuetan, baserriaren desnibela aprobetxatuz, erdi lur-azpian, upategia izaten zen upelak eta bihitegia (aleak) gordetzeko. Bigarren solairuan urtean jasotako uzta eta fruituak gordetzen ziren: belarra, gaztainak, sagarrak...



Amerikatik ekarritako landare berri batek garia ordezkatu zuen. Garia adinako hiru uzta ematen zituenenez jende gehiagok hobeto elikatu ahal izan zuen. Maien (Amerikako biztanleetako batzuk) janari preziatua zen. Ogia eta taloak egin zitezkeen berarekin; baita txikituta animaliei jateko eman ere.

Landare horretaz gain, pixka bat beranduago, gure jatekoan ohiko bihurtu diren beste bi landare berri ekarri zituzten. Landare berri horiei esker jendeak gose gutxiago pasatu zuen.

Begiratu ondoko zenbakiei. Egin itzazu bertan adierazitako eragiketak eta ea asmatzen duzun nola deitzen diren Amerikatik ekarritako landare berri horiek.

$12:6 =$	$30-29=$	$3 \times 1=$	$16:4=$	$19-17=$
_____	_____	_____	_____	_____
$25:5=$	$21-19=$	$35:7=$	$37-35=$	
_____	_____	_____	_____	
$3 \times 2=$	$15-13=$	$14:2=$	$18:9=$	$35:5=$
_____	_____	_____	_____	_____

1-R

2-A

3-T

4-O

5-B

6-P

7-T



Osa itzazu esaldietan dauden hutsuneak. Hutsuneak osatuta baserriko leku bakoitza zertarako erabiltzen zen jakingo duzu.

1 - _____ an lastoa edo lehortutako belarra egoten da, animaliei jaten emateko.

2 - _____ n sagarrak, intxaurrak, patatak... uzten dira urte osoan usteldu gabe mantentzeko.

3 - _____ sukaldearen ondoan dago eta bertan animaliak egoten dira.

4 - _____ familia guztiaren bilgune da, suaren inguruan kontu kontari aritzen ziren bertan.

5 - _____ bat edo bi izaten ziren baserrietan, bertan egiten zuten lo baserrian bizi zirenek.

6 - _____ an sagardo kupelak edo gari kutxak gordetzen ziren, baserriaren beheko aldean egon ohi zen.

upategia

mandioa

ganbara

sukaldea

ukuilua

logela



Ba al dakizu asteko zein egunetan izaten den azoka Azpeitian?

Ganadu feria hilean behin egiten da, hilabete bakoitzeko hirugarren astean. Baina asteko zein egunetan egoten dira baserritarrak plazan?

Ba al dakizu zenbat balio duen Azpeitiko azokan produktu hauetako bakoitzak?

ELIKAGAIAK	SALNEURRIA 1	SALNEURRIA 2
Gazta (1kg)		
Ogia		
Tomatea / letxuga		
Arrautza dozena		
Patata		
Babarrun beltza		

Azoka eta feriara inguruko baserritarrak jaisten dira baserriko elikagaiak, animaliak edo tresnak salerostera. Lehen salneurriak aldatu egiten ziren (saltzeko zeuden gauzen kopuruaren arabera).

Gaur egun postu guztietan salneurriak berdinak al dira?
Borobildu erantzuna.


BAI

EZ

XVI. mendean nekazaritza ateratzen zutena ez zen nahikoa hiribilduan bizi ziren biztanle guztiei jaten emateko. Ondorioz beharrezkoa zen merkataritza, behar zen janaria kanpotik ekarri eta trukean beste zerbaite emateko.

- **Garia** Araba, Nafarroa, Gaztela, Andaluzia, Frantzia edo Ipar Europatik ekartzen zuten.
- **Zerealak eta ardoa** Araba eta Nafarroatik ekartzen zituzten.
- **Burdin minerala** Bizkaiko meatzeetatik ekartzen zuten.
- Bedua (Zumaia) zen Azpeititik gertuena zegoen portua. Bertara iristen zen burdin minerala eta bertara eramaten zituzten inguruko burdinoletan landutako burdinezko tresnak.
- Azpeitia eta Bedua arteko garraioa idiek bultzatutako gurdien bidez egiten zen.
- Beduatik itsasoz Sevillara eta handik Amerikara eramaten zen Azpeitia eta inguruko burdinoletan lantzen ziren **burdinezko tresnak**.

Goiko testua irakurri ondoren saia zaitez beheko eskeman dauden hutsuneak betetzen:







Burdinezko tresnak lortu ahal izateko behar-beharrezkoa zen burdin minerala izatea. Bizkaiko meategietatik ekartzen zuten, Muskiz edo Somorrostroko meatzeetatik.

Baina burdin minerala berotu egin behar izaten zen burdina ez zen elementuak kentzeko. Horretarako egur ikatza erabiltzen zuten. Egur ikatza ikazkinek txondorretan lortzen zuten.

Behin burdin garbia lortuta urtu egiten zen suteagian, temperatura altua behar izaten zen horretarako. Burdin urtua mailu handiarekin lantzen zuten, karratu edo laukizuzen itxura ematen zitzaion burdin totxo osatzeko.

Burdinolak baino lantegi txikiagoetan burdin totxo hori urtu eta tresna txikiagoak egiten zituzten: ferrak, segak, aizkorak, haitzurak, laiak, ingudeak, ateetako iltzeak, guraizeak, labanak, ezpatak.

Irakur ezazu goiko testua eta ordena itzazu ondoko irudiak 1etik 4ra




Lotu ezazu tresna bakoitza dagokion erabilerarekin:

- | | |
|-----------------------------------|--|
| ☐ Aizkora | 1 Garraioa idiak, zaldiak edo antzerako animaliekin egiten zenez, animalia hauen oinetan jartzen ziren burdinezko 'zapatak'. |
| ☐ Laia | 2 Baserrietan belarra mozteko erabiltzen den tresna. Segapotoan gordetzen da zorrozteko behar izaten den harria. |
| ☐ Ferra | 3 Gauzak mozteko erabiltzen den tresna. Batez ere egurra mozteko erabiltzen da baina haragia, hezurak... ere mozten dira berarekin. |
| ☐ Sega | 4 Lurra lantzeko erabiltzen da, baratzen batez ere. |
| ☐ Aitzurra | 5 Lurra iraultzeko (buelta emateko) erabiltzen zen, taldean egiten zen lana berarekin eta lana bukatu ondoren lurra lantzeko prest izaten zen. |



Ikazkinek egur ikatza lortzeko txondorrak egiten zituzten, egurrez betetako tontorrak. Begiratu ondoko irudiari eta saia zaitez zu ere txondorra marrazten eta honako hitzak zure marrazkian kokatzen: **kebidea edo suetxea, kea ateratzeko zulotxoak, enbor lodiak, adar meheak, orbela eta lurra.**




Burdinoletan landutako gauzak herri inguruko dendetan saltzen ziren edo idiek bultzatutako gurdietan Beduara eramaten ziren.

Beduan itsasontziak egoten ziren zain, landutako burdina itsaso bidez Portugal edo Sevillara eramateko.

Batzuetan Sevillatik itsasoz Amerikako herrialdeetara iristen ziren hemen landutako burdinezko tresnak.

Irudian duzuen Kanadako kostaldean aurkitutako San Juan galeoiaren erreprodukzio bat da.



Beduatik Andaluziara abiatzen ziren ontziak horrelakoak ote ziren? Nolakoa izango zen zure ustez itsasontzia?



Ba al dakizu batzuetan itsasontzi horiek piratek erasotzen zituztela?

LIHOA



Begiratu goiko irudiei eta erantzun honako galderak:
Nortzuk ez zuten burukorik erabiltzen?

Lihoa oihalak egiteko erabiltzen den landarea da. Lihoarekin emakumeen burukoak egiten zituzten esaterako. Burukoa emakume ezkonduak erabiltzen zuten.

Zein oihal erabiltzen zen burukoak egiteko?

Mutilek janzten al zuten burukorik?



Ordena itzazu ondorengo esaldiak 1etik 5era.
Lihozko arropak nola egiten zituzten ikasiko duzu horrela!

- ☐ Burdin puntekin lihoa harrotzen zen eta haria egin, matazetan biltzeko.
- ☐ Behin lehortutakoan ehuteko makinan arropak egiteko oihal bihurtzen ziren.
- ☐ Portugaletik ekarritako linazia etxe inguruan ereiten zuten.
Landareak moztu eta linoputzura botatzen zituzten biguntzeko.
- ☐ Matazak uretan egosten ziren eta errautsekin zuritu egiten ziren.
- ☐ Landarearen enborrak haria zeukan barruan; bigundu, txikitu eta jo egiten zen (garia bezala). Azala kendu eta haria ateratzen zen.

Nolako oihalak edo arropak egiten zituzten emakumeek lihoarekin?
Marraz ezazu beheko laukian zuk lihoarekin egingo zenukeen zerbait.





**Irakur itzazu ondorengo esaldiak eta egin ezazu gurutzea egokia iruditzen zai-
zun lekuan.**

INUDEAK



- ☐ Animaliei bularra ematen zieten emaku-
meak ziren.
- ☐ Normalean diru truke besteen haurrei
bularra ematen zietenak ziren.
- ☐ Kalez kale dantzan ibiltzen ziren emaku-
meei deitzen zitzaien.

LIXIBAGILEAK



- ☐ Ibaian sartu-irtenak egitea gustatzen zi-
tzaien emakumeak ziren.
- ☐ Arropa asko zikintzen zituzten umeak
zituztenak ziren.
- ☐ Besteen arropak ibaietan edo garbitokie-
tan garbituz lan egiten zutenak ziren.

LIHOGILEAK



- ☐ Artilezko galtzetak egiten zituzten emaku-
meei deitzen zitzaien.
- ☐ Lihoaren haria eta hariarekin oihalak eta
arropak egiten zituztenak.
- ☐ Emakume adinduei deitzen zitzaien.

EMAGINAK



- ☐ Erditzen ari ziren emakumeei umeak mundu-
ratzen laguntzen zieten emakumeak ziren.
- ☐ Erratzen gainean akelarreetan ibiltzen ziren
sorginei deitzen zitzaien.
- ☐ Inork nahi ez zituen haurrak hartzeaz ardu-
ratzen ziren.

Azpeitian ospitaleak egon dira. Aurreko liburuxkan Madalenako ospitalea aipatu genuen. Denborarekin Madalenako ospitaleak indarra galdu eta Bustinzuriko ospitaleak hartu zuen bere lekua, gaur egun Olazko Amaren Plazatxoa dagoen inguruan.



Begira ezazu honako hizki zopan eta ea aurkitzen dituzun ospitale batean beharrezkoak diren lanbide edo tresna desberdinak.

erizaina

ohea

manta

medikua

botikak

M	B	G	A	D	R	R	O	H
Z	E	R	I	Z	A	I	N	A
I	H	D	O	K	B	A	T	E
K	A	K	I	T	O	B	L	H
S	M	O	N	K	T	U	D	O
H	A	T	W	S	U	B	O	S
F	G	M	A	N	T	A	K	J

Nahiz eta herrian ospitaleak izan, bazen gaixotasun bat, inguruan zebilela entzute hutsarekin jendea dardarka hasten zena.

Beheko hutsuneetan letra egokiak jarritz, esango al zenuke zein zen gaixotasuna?

$27-26=1$

$30:6=5$

$14:7=2$

$3 \times 2=6$

$17-14=3$

$35:5=7$

$16:4=4$

1

2

3

4

4

1

5


6

7

Ba al dakizu nola deitzen den irudian agertzen den zubia?

Jakingo al zenuke esaten herriko zein ingurutan dagoen?

Gaizka Otamendi



Zubi hori nola eraiki zuten azaltzen duen kondaira ezaguna da herritarren artean. Oilarrak eta sorginak aipatzen dira kondaira horretan.

Nahi al duzu jakin?

Amuko zubia gau bakarrean altxatu zen. Eraiki behar zuenak zailtasun handiak zituen, eta ez zekien lana nola hasi. Halako batean, sorginak agertu ziren eta barre egin zioten zubia eraiki behar zuenari. Beraiek baietz zubia gau hartan bertan, hasieratik bukaeraraino eraiki apustu egin zioten, oilarrak kukurruku egin aurretik.

Eraiki behar zuenak apustua onartu egin zuen eta sorginek lanari ekin zioten. Sorginak oso ondo ari ziren lanean. Eraikitzailea apustua galtzeko beldurrez sorginei apustua nola irabazi pentsatzen hasi zen.

Ondoko baserriko oilategiaren ondoan su handia egin zuen, surik handiena oilarra zegoen lekuan eginez. Oilarrak eguna argitzen ari zela pentsatu zuen eta kukurrukua hasi zen. Sorginek, oilarraren kukurrukua aditzean, egiten ari ziren guztia bertan behera utzi eta ihes egin zuten, eguna argitzen ari zelakoan. Zubiari harri bakarra falta zitzaion bere lekuan jartzeko eta ondorioz sorginek apustua galdu zuten.

Marraztuko al zenuke kondairaren arabera zubia eraikitzerakoan gertatu zena?

PLAZA NAGUSIA


Ondoko marrazkian Plaza Nagusia agertzen da.

1. Behean dituzun esaldiak irakurrita ordena itzazu zaharretik berrienera (1etik 5era) esaldietan agertzen diren eraikin desberdinak.
2. Ondoren saia zaitez zenbaki bakoitza marrazkian egongo litzatekeen lekuan kokatzen.



San Agustin komentua Plaza Nagusiaren Iparraldean aurkitzen zen, eta haren eliza da gaur egun geratzen zaiguna udaletxeko eraikinaren barruan Sanagustin Kulturgunean. Haren jatorria 1578. urtean kokatzen da.

Santo Domingo komentuen fundazioa 1590. urtean adostu zuten domingotarrekin. Komentua Plaza Nagusiaren Ekialdeko alde guztia hartzera iritsi zen, errebaletik ibairaino.



1739. urtean Udalak erortzeko zorian zegoen etxe bat berreraikitzea erabaki zuen. Etxeak kare-harri grisean egindako erdi puntuko bi arkuko arkupea izango zuen; hura hiribilduko multzoan etxe berezi bihurtu zen (Orendainetxea, Mantekape pasabidearen gaineko etxea).

Plazaren erdian XX. mendekoa den musika kioskoa dago (1917an eraikitakoa).

Udaletxearen aurrean azokaren eraikina dago, arkudun fatxadarekin. Lehenengo eraikina XX. mende hasieran eraiki zen (1902 inguruan). Gaur egun ezagutzen duguna beranduago eraiki zena da.



Begira ezazu arretaz honako marrazkia eta erantzun itzazu galderak:

Zenbat kideetako familia da?

Zenbat bizi zarete zuek etxean?

Familia agirretarrena baldin bada, nola deituko da beraiek bizi diren baserria?

Zuen etxeak ba al du izenik? Baldin badu, nola deitzen da?



Lotu ezazu irudian agertzen den pertsonaia bakoitza (hizkiak) koadernoan landu dugun gai bakoitzarekin (zenbakiak).

- 1) Sorginak
- 2) Baserria
- 3) Merkataritza
- 4) Burdinolak
- 5) Amerikara bidaia
- 6) Lihoa
- 7) Emakumeen lanbideak
- 8) Plaza Nagusia
- 9) Ikazkina

A

B

C

D

E

F

G

H

I

Jakingo ote zenuke?

Aipatuko al zenituzke lau auzoren izenak?

Zuzena dena aukeratu:

Loiola herriko zein pertsonaiari dago eskainita?

- ☐ Joanes Antxietakoa.
- ☐ Inazio Loiolakoa.
- ☐ Nicolas Saez Elolakoa.

Zeri deitzen zaio errebala?

- ☐ Alkatearen etxeari.
- ☐ Zaborrak erretzen zituzten lekuari.
- ☐ Harresietatik kanpo etxeak eraikiz sortzen ziren kale berriei.

Zer gertatu zen Azpeitiko harresiarekin?

- ☐ Gaur egunera arte mantendu da.
- ☐ Harresi barruko ingurua txiki geratu eta Azpeitia errebaletatik hazten joan da.
- ☐ Azpeitia harresi barruan bakarrik eraiki da.

Non zeuden burdinola gehienak?

- ☐ Urrestilla eta inguruetan.
- ☐ Harresi barruko Azpeitian.
- ☐ Beduan, itsasontziak itsasoratzen ziren lekuan.

Marraz ezazu koadernoan landu ditugun gaietatik gehien gustatu zaizuna.



Jaso dugun altxorra



Azpimarra itzazu, zure ustez, Azpeitia eta inguruari dagozkien ezaugarriak:

Eguzkitsua, basotsua, atsegina, kirolzalea, koloretsua, naturala, lehorra, zaharra, alaia, lasaia, modernoa, aberatsa, industrial, lehorra, zaharra, lasaia, aberatsa, argia, baserritarra, garbia, langilea, iluna, zaratatsua, jendetsua, kutsatua, menditsua, festazalea, hezea, euritsua, berdea.

Gai izango al zinateke Azpeitia eta ingurua nolakoa den azaltzeko? Goian aukeratutako ezaugarriak erabili ditzakezu.

Ezagutzen al dituzu herrian edo inguruan ditugun mendien izenak? Zeintzuk?

Eta herritik edo inguruetatik pasatzen diren ibai eta errekenak? Zeintzuk?

Non daude irudietan ikusten dituzun parke hauek?









UROLA IBAIA



Urola ibaia da Azpeitia eta inguruko urak jasotzen dituen ibai nagusia. Ondoko mapari begiratu eta jakingo al zenuke zeintzuk diren Urola ibaiaren ur emaille nagusiak? Jar itzazu ondoko zerrendan.



1 - _____

2 - _____

3 - _____

4 - _____

5 - _____

Beraz Urola ibaiaren ur emaille nagusiak

_____, _____

_____, _____

eta _____ dira.

Urola ibaian eta bere ur emaille diren erreketan animalia hauek bizi dira. **Lagunduko al diguzu irudi bakoitzari behar duen izena jartzen?**

barboa, amuarraina, buztanikara zuria, urolloa, aingira, ur igela





BASOA

Erreka eta ibai ertzetan gehien ikusten den zuhaitza haltza da. Altuerak gora egin ahala haritza da nagusi. 500 metrotik gora pagoa da gehien ikusten den zuhaitza.


Begiratu marrazkia eta koka ezazu hutsune bakoitzean dagokion izena:

haritza, haltza edo pagoa.

400-500 metrotik gorako altuera: _____

400-500m.rainoko altuera: _____

Ibai edo erreka ertzak: _____



Argazkietan haltza, haritza eta pagoaren irudiak dituzu. Jakingo al zenuke bakoitza zein den? Idatz ezazu azpiko hutsuneetan.




Azpeitiko lurren %22a pagadiak, hariztiak eta artadiak osatzen dute.

Beste zenbait espezie baso horietan aurkitzen dira baina kopuru txikiagoan: lizarra, gaztainondoa, urkia, astigarra, elorria, sahatsa, gorostia, hagina.

Ea asmatzen duzun irudi bakoitza zein zuhaitzena den.

Jar ezazu irudi bakoitzaren azpian lizarra, gaztainondoa, urkia, astigarra, elorria, sahatsa, gorostia edo hagina den.





Gerrarako, herriak dirua behar izaten zuenean mendietatik ateratako egurra saltzen zen. Soldaduei arropa erosi, jaten eman eta soldata ordaintzeko erabiltzen zuten lortutako dirua.

Gerraren beldur ziren garaietan arma erakustaldiak egiten zituzten herriko kale eta errebaletan: alardeak.

Batzuetan otoitzak eta prozesioak egiten zituzten bakea eskatuz. 17 urtetik 60 urtera zituzten herriko gizonezko guztiek gerrara joateko prest egon behar zuten. Aberatsak, alkatea eta gaixo zeudenak libratzen ziren. Pitxar batean sartzen zituzten izenak eta han ateratakoek joan behar izaten zuten gerrara.

Gerrara joandako asko ez ziren bizirik itzultzen; itzultzen zirenak gaixotasun larriekin edo zaurituta itzultzen ziren askotan.


Osa itzazu honako hitzen hizkiak. Ondoren jarri zenbaki bakoitzari dagokion hizkia bere lekuan. Esaera zahar bat ikasiko duzu.

1. Gerran borroka egiten zutenak: **SO1DAD2AK.**
2. Borroka egiteko erabiltzen zen munizioa: **POL3O4A.**
3. Gerrarako dirua lortzeko herriko agintariak saltzen zutena: **E5URRA.**
4. Bakea eskatzeko jendeak egiten zuena: **PRO6ESIOA.**
5. Gerrarako prest izateko kalean egiten ziren arma erakustaldiak: **ALAR7EA**

“ ANTZA ESK AN UENAK AU A U TIAK E EAK”

1 2 7 5 6 5 6 3 4


Zeintzuk ote? (Z-zuzena /O-okerra)

- 
- ☐ Herritarrei opariak egitea.
 - ☐ Aberastasunen jabe izatea: lurrak eta etxea.
 - ☐ Emaztea eta seme-alabak edukitzea.
 - ☐ Kaparea edo behe mailako jauna izatea.
 - ☐ Azkoitiarra izatea.
 - ☐ Herriaren barruan bizitzea.
 - ☐ Neska edo emakumea izatea.
 - ☐ Euskaraz jakitea.
 - ☐ Baserritarra izatea.
 - ☐ Ile horia eta begi urdinak edukitzea.
- XV**

XV. mendetik aurrera joan ziren zehazten Azpeitiko mugak. Agintari berrien zeregina izaten zen herria zeharkatu eta mugak behar zuten lekuan egoki zeudela begiratzea.

Begira ezazu ondorengo mapan eta ea aurkitzen dituzun bertan ondorengo izenak: Lasao, Xoxote, Sañoa, Loiola, Barrenola, Eizmendi, Txalintxo, Larrume, Samiño, Nuarbeko urtegia eta Izazpi.

Puntu guztiak bata bestearekin lotzen badituzu agintari berriek mugak begiratzeko egiten zuten ibilbidea ezagutuko duzu.

[illegible][illegible]


Loiolako Inaziok sortutako Jesusen konpainia lurralde desberdinetara zabaldu zen: Frantzia, Italia, Portugal, Alemania, Hungaria, Afrikako kostaldea, Goa, Japonia, Brasil, Florida, Mexiko, Peru, Ekuador, Kanada...

Ez al da harrigarria Azpeitiak eta bere inguruko jendeak munduan izan duten eragina?

Loiolako Santutegiaren proiektua 1681. urtean hasi ziren garatzen. Carlo Fontana italiar arkitekтуari eman zitzaion bertako proiektua diseinatzeko enkargua. Obra egiteko diru asko behar zen eta diruaren zati bat Espainiako erregeak jartzen zuen. Herritarrek ematen zuten dirua ere garrantzitsua zen. 1688an jarri zen lehenengo harria. Obren ardura arkitekto edo maisu askoren esku egon zen. Carlos III.a erregeak Jesuitak Espainiatik kanporatu zituen 1767an eta Loiolako lanak etenda geratu ziren. Azkenean 1888an bukatu ziren Loiolako Santutegia eraikitze lanak.



Begira ezazu ondorengo plano eta kokatu bertan leku bakoitzari dagokion zenbakia.



- 1 - Kupula
- 2 - Patioa
- 3 - Sarrerako ataria
- 4 - Loiolatarren dorretxea

Lotu ezazu esaldi bakoitza dagokion irudiarekin:

1 - Azpeitiko kontzeju etxerik zaharrena Txaribarren eraiki zuten XV. mende bukaeran. Parrokia edo elizaren ondoan eraiki zuten, beste herri batzuetan bezala.

2 - Korrejidorearen etxea harresien zati bat bota eta sortutako plaza berria eraiki zuten. Bertan bizi izaten zen Gipuzkoako lau herrietan txandaz txanda ibiltzen zen Erregearen Auzitegiko ordezkaria. Gaur egungo epaileen antzerako funtzioa betetzen zuen.

3 - Olazko ermitan ospatu ziren Gipuzkoako azken Batzar Bereziak 1700. urtean. Batzar Nagusiak egin bitartean sortzen ziren arazoak eta larrialdiak konpontzeko egiten ziren batzarrei deitzen zitzairen Batzar Bereziak.



Azpeitian jende eta familia asko gaitzizenez edo ezizenez ezagutzen dira.

Ba al duzu gaitzizenik? _____

Ezagutzen al duzu gaitzizen bat duen inor? Nola deitzen diote? _____

Zure familiak ba al du gaitzizenik? Zein? _____



Kokatu mapan, mugarri bakoitzaren ondoan, Gipuzkoako Aldundia txandaka egoten zen herriak: Donostia, Tolosa, Azkoitia eta Azpeitia.

XVIII. mendean Gipuzkoako lurraldearen hiriburua zehaztu gabe zegoen oraindik. Korrejidorea eta Aldundia lau herri desberdinen artean txandakatzen ziren urtero. Lau herri horiek Tolosa, Donostia, Azkoitia eta Azpeitia ziren. Korrejidorea, Batzar Nagusietako ordezkariak, artxiboak ... herri batetik bestera mugitzen ibiltzea nekagarria zenez, Aldundia leku batean jartzea eskatu zuten. Korrejidoreak eta beste zenbait ordezkari nahiago zuten Donostia. Aldiz Urola inguruko ordezkariak Loiolako barrutia proposatu zuten horretarako. Barruti horrek Azpeitia eta Azkoitiko lurraldeak hartuko zituen. Probintziaren erdialdean egonda Gipuzkoako hiriburua bertan jartzeko lekurik egokiena iruditzen zitzaien.

Gaur egun zein da Gipuzkoako hiriburua?

Loiolako barrutia Gipuzkoako hiriburu bihurtu izan balitz, zertan aldatuko litzateke guk gaur egun ezagutzen ditugun Azkoitia eta Azpeitia?

Marraz ezazu edo egin ezazu collage bat egunkarietan edo aldizkarietan bilatutako irudiekin, ezagutzen dugun ingurunea zertan aldatuko zen adierazteko.

Gipuzkoan, beste lurraldeetan bezala Foruak zeuden. Herritarren antzinako ohiturak ziren. Denborarekin lege bihurtu ziren. Erregeak ere foruak errespetatuko zituela zin egin behar izaten zuten. Euskal lurralde bakoitzak bere Foruak izan zituen.

Ba al duzue zuek arau edo legerik ikasgelan?

Saiatu zaitez zuek gelan dituzuen ohitura edo legeekin zuen ikasgelako Foruen liburuxka osatzen.

Ea gai zaren 5 ohitura edo lege liburuxkan idazteko


1 -

2 -

3 -

4 -

5 -



Foru horien arabera euskal lurraldeek abantaila edo pribilegio batzuk zituzten. Adibidez, merkataritzarako muga edo aduana Ebro ibaian zegoen. Hori euskaldunentzat abantaila zen, gauzak merkeago lortu ahal zituzten. Horrela merkataritzatik irabazi handiagoak lortzen zituzten. Baina Espainiako erregeak lurralde guztietan lege berdinak egotea nahi zuen. Foruak euskaldunei ematen zizkieten abantailak ez zituen gustuko. Muga Ebro ibaitik kostaldera eta Frantziako mugara igarotzeko agindu zuen. Herritarrek haserretu eta erregeak hartutako neurrien aurka egin zuten. Gertaera horiek 1718ko matxinada bezala ezagutzen dira. Azpeitian ere herritarrek beraien haserrea erakutsi zuten garia eta artoa bezalako janariak garestitzearen aurka.



Mapari begiratuta, aduana gehienak non aurkitzen direla esango zenuke, Euskal Herriaren inguruan edo barruan?

Nola deitzen ziren aduanen abantaila ematen zuten legeak?



Lehen herrietako plaza edo eliza atarietan herri horretan erabiltzen ziren neurriak eta pisuak egoten ziren, zerbait erosi edo saltzerakoan jendeari ziririk ez sartzeko.



Bergaran udaletxean dauden neurriak



Lehen erabiltzen zen balantza pisua

Zer gertatzen zen benetako neurri edo pisua erabiltzen ez bazuten dendari edo merkatariek?



Jaunari kutxa txikia emanez gero nekazariarentzat jateko gehiago edo gutxiago geratzen zen? Zergatik?

Jaunari kutxa handia emanez gero nekazariarentzat jateko gehiago edo gutxiago geratzen zen? Zergatik?



Sailka itzazu ondorengo ezaugarriak Ilustratuen edo herritarren artean. Jarri gurutzea (X) dagokion laukian:

	ILUSTRATUAK	HERRITARRAK
Frantziako moda jarraituz ile ordeak janzten zituzten.		
Eliz atarian bildu, arazoak eztabaidatu eta erabakiak hartzen zituzten.		
Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen inguruan batzen ziren Azkoitiko Insausti jauregian, Peñaflores kondea buru zutela.		
Batez ere baserritarrak, artisauak eta dendari txikiak izaten ziren.		
Kontzejuko herri lurrak landu, txukundu eta zaintzeko auzolana egiten zituzten.		
Herritarrei jakintzaren argia eskaini nahi zieten.		
Beraiek egunero egiten zuten lanetik bizi ziren batez ere.		
Entziklopedia irakurtzen zuten.		
Goseteak eta janari eskasiak gertatzen zirenean oso egoera zailak bizi izaten zituzten.		
Inguruko jaun eta nobleak talde honen inguruan elkartzen ziren.		

Ilustratuak munduaz zuten jakintza guztia Entziklopedian biltzen saiatzen ziren. Egiten zekizkiten gauzak nola egin azaltzen zuten. Pentsa dezagun gelako Entziklopedia bat osatu behar dugula. Horretarako bakoitzak egiten dakien zerbeit besteei nola egin azaldu behar die marrazki eta idatzi bidez.

Zer dakizu egiten? Azal iezaiezu gelako besteei egiten dakizuna.



Azpeitia inguruetan burdinola asko zegoen, gehienak Urrestillan. Kanpotik jende asko etortzen zen lanera. Burdinoletako langileei matxino deitzen zitzaien. Matxinada hitzak burdinoletako langileen haserrealdia esan nahi zuen.

Burdinolak desagertzen hasi ziren 1700-1800 urte bitartean. Burdinoletarako egurra lortzeko zuhaitz asko bota ziren. Basoak desagertzen ari ziren eta ez zegoenez nahiko egur zaila zen ikatza egitea.

Baserri gehienak jaunenak ziren. Baserritarrek urtero jasotako artoaren eta gariaren zati bat eman behar izaten zioten, baserrian bizitzen jarraitu ahal izateko. Jaunek jasotakoa biltegietan gordetzen zuten, ondoren jendeari saltzeko.

Merkataritza bultzatzeko erregeak lege berri bat jarri zuen. Lege horren ondorioz, janaria asko garestitu zen. Jendea haserretu egin zen janaria erosteko nahiko diru ez zeukalako.

Igande batean, Azkoitiko apaizak jaunek biltegietan gordetako garia eta artoa kanpokoei ez saltzeko esan zuen. Bertakoak goseak zeuden eta apaizak ez zuen nahi jendea gehiago haserretzerik.

Hurrengo egunean Mendaroko bi emakume etorri ziren Azkoitira. Jaunek artoa eta garia saldu zizkieten. Etxera abiatu zirenean herriko jendeak gelditzeko esan zien.

Jaunengana eraman zituzten. Emakumeei garia eta artoa erosteko erabilitako dirua bueltatzeko eskatu zieten. Jende asko gerturatu zen zer gertatzen zen ikustera, baserrietatik ere jaitsi ziren. Jaunei garia eta artoa merkeago saltzeko eskatu zieten. Jaunek onartu egin zuten eta jendea etxera itzuli zen lasai-lasai.

Azkoitiarrak azpeitiarrei gutuna bidali zieten jaunek garia eta artoa merkeago jartzea lortu zutela esanez. Jaunek kartaren berri izan zuten. Baserritarrei eta Loiola eraikitzen ari ziren langileei laguntza eskatu zieten matxinoen aurka egiteko. Langileek beraiek ere artoa eta garia merke egotea nahi zutela eta ez zutela lagunduko erantzun zuten.

Baserritarrak ere gu ez gara azkoitiarrak baino gutxiago! esan eta janaria merkeago egotea nahi zutenekin elkartu ziren.

Gauetz jendea Azpeitian bildu zen: Loiola eraikitzen ari ziren langileak, baserritarrak, Urrestillako matxinoak... Bi mila pertsona inguru batu ziren. Jaunen biltegiak hustu zituzten, okindegi eta tabernetan sartu eta gaua jan edanean, festan pasatu zuten.

Jaunen etxe batzuetara sartu ziren balkoietatik igoz. Jaunetako bat ohetik lotarako arropekin atera eta kanean gora eta behera ibili zuten.

Dendetan erabiltzen ziren neurri eta pisuak bildu, plazan pilatu eta makiladaka txikitu zituzten. Jendeari askotan tranpa egiten zioten neurri eta pisuekin janaria saltzerakoan.

Arau berriak jarri zituzten Azpeitian ere. Garia eta artoa merkeago jarri zituzten. Jaunek lehengo egoerara itzuli nahi zuten, garia eta artoa garesti saldu eta beraiek aberasteko. Donostiatik soldaduak bidaltzeko eskatu zuten matxinoak kartzelara eramateko.

Soldaduek matxinoak harrapatu zituzten. Loiola eraikitzen ari ziren hirurogeita hamalau langile ere Azpeitiko kartzelara eraman zituzten.

Matxinatuek legea hautsi zutela erabaki zuten eta Donostiara eraman zituzten. Bidean hildakoak eta guzti egon ziren. Matxinatuei zigorrak jarri zizkieten: galeretara bidali, Gipuzkoatik kanpo bizitzera behartu...

Azpeitiko agintariak matxinada berriz piztuko ote zen beldur ziren. Urte horretan Saninazioetako zezenketak eta arma erakustaldiak ez ziren egin. Matxinadari buruz ez zen hitz egiten.

Baina zuk, egingo al zenuke komiki bat matxinadan kontatutakoa azalduz?

Marrazkilariak komikia marraztu duenean haize bolada handi batek paperak nahastu dizkio eta orain ez daki marrazki bakoitza non den. Lagunduko al diozu bakoitza bere lekuan jartzen? Ordena itzazu 1etik 3ra bitarteko zenbakiak erabiliz.





Historia giza talde baten iraganeko gertaera batzuk ezagutzea, ulertzea eta kontatzea da. Historialari Historia lantzen duenari deitzen zaio. Historialaria iragana nolakoa izan zen ulertzen saiatzen da, orainaldia ulertzeko. Azpeitia ezin da lehen nolakoa izan zen edo bertako jendea nola bizi izan zen jakin gabe ezagutu.

Historialari asko egon da Azpeitian eta haiei esker jakin dezakegu nola bizi izan ziren lehen azpeitiarrak.

Historia biltzen aritu dira Ildefonso Gurrutxaga, Karmelo Etxegarai, Jose de Arteche, Leo Etxeberria, Iñaki Azpiazu, Imanol Elias edo Ignacio Arteche esaterako. Haien lanik gabe ez genuke lantzen ari garen koadernoak esku artean izango.

Aipatutako historialari horien izena daramaten kale edo leku ugari daude Azpeitian. Jakingo al zenuke zein auzotan dauden esaten?



NON DAUDE?

- 1 - Karmelo Etxegarai Ikastola
- 2 - Ildefonso Gurrutxaga kalea
- 3 - Jose Artetxe kalea
- 4 - Iñaki Azpiazu kalea



ZER IKASI DUZU?

Osa ezazu honako
gurutzegrama
behean dituzun
pistak jarraituz:



1. Urola ibaiaren ur-emaille nagusienetakoa, Nuarbeko urtegiak ere izen berdina darama. _____
2. Azkoitiko zalduntxoaren ordezkari nagusi izan zena. _____
3. Azpeitiko herriaren kanpoaldean zutik dirauen zubi zaharrenetakoa. _____
4. Gizakiok bizirik irauteko ezinbestean behar duguna. _____
5. 1766ko matxinadan zekale horren prezioa jaisteko borroka egin zuten. Gaur egun ere ogia egiteko erabiltzen den lehengai nagusia da. _____
6. Xoxote, Erlo eta Kakute tontorrek hartzen zituen mendikatea. _____
7. Urola ibaian ugari izaten zen arraina, ibaia garbi zegoenaren erakusgarri; oraindik ere Errezil eta Aratz- Erreka inguruetan topa daitekeena. _____
8. Gure mendietako basoetan ugari dagoen zuhaitza, 500 metrotik gorako altuera duten lekuetan hazten dena batez ere. _____
9. Burdinola gehien zegoen lekua. Bertatik Loiolara laguntzera etorri ziren 1766ko matxinadan.

10. Jendeari deitzeko herritarrek erabiltzen zuten ezizena edo _____.
11. Barnealdetik kostaldera mugitu zituztenean iskanbilak eragin zituzten muga edo _____.
12. Garia eta artoaren matxinada garaian eraikitzen ari ziren elizaren izena. _____
13. Lurralde bakoitzeko lege bereziei deitzen zitzaizen modua. _____
14. Gauzak pisatzeko erabiltzen zen ohiko tresna. _____
15. Historia bildu, ikertu eta kontatzen duena. _____

Eskerrak: Azpeitiko Ikastola Ikasberri, Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai, Iraurgi Ikastetxea, Imanol Elias eta bere sendiari, Joxe Garmendia, Kitterra, Jauregi baserriko ikazkinak, Jose Luis Otamendi, Aitor Arruti, Aranzadi Zientzia Elkartea; Elhuyar ; Loiolako etxe santua, Anaia Garate eta Madalenako ospitaleko arduradunei (Joxema Añon); Parrokia eta Barkardadearen kapera erakutsi zigutenei (Inaxio Mari Olarte), Fermin Leizaola, Iruna Lasa, Uztarria, Igartubeiti Museoa, Goierriko Hitza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Albaola Fundazioa, Eresbil, Martinez Inprimategia... modu batean edo bestean bidean lagun izan zareten guztiei.

